


# Hesi linguistikorik gabeko komunikazio globalerantz: QTLeap proiektua



**Paradoxiko izan daiteke, baina aro digitalean eta globalizatutako mundu batean, giza hizkuntza da komunikaziorako oraindik aurkitzen dugun azken hesi nagusietako bat. QTLeap ikerketa-proiektu europarrak aurrerapen teknologikoak bilatzen ditu hesi hori ezabatu edo gainditzeko, beti ere aniztasun linguistikoa gutxitu gabe.**

Gure inguruko mundua ezagutzeko ate bat da giza-hizkuntza. Baina aro digitalean, eta globalizatutako mundu batean, komunikaziorako oraindik aurkitzen dugun hesi nagusietako bat ere bada. Informazio- eta komunikazio-teknologia berriek mundu guztiko jendea jartzen digute eskura, baita informazio-iturri mugagabe bat ere. Baina, gutako bakoitzarentzat, unibertso berri horrek jarraitzen du ezin iritsizkoa izaten eta ia guztiz itxita dugu oraindik, harresiztatuta dago hizkuntzen arteko hesi ikusezinekin.

Hizkuntza naturalen gaineko ikerkuntzak, eta bereziki itzulpen automatikoarena, komunikaziorako eta informazioa lortzeko azken hesi hori gainditzeko ekarpen erabakigarri bat egin dezake.

Itzulpen automatikoa hizkuntza batetik beste batera adierazpenak itzultzea bilatzen duen prozedura konputazionala da. Erronka handi horren inguruko ikerketa eta garapenak heldutasun maila batera aupatu du teknologia hau, eta lortu dira jada soluzio praktiko erabilgarriak. Ahalbidetzen du automatikoki itzulitako adierazpenen funtsa lortzea, gutxienez, eta oso emaitza onak lortzea ere hizkuntz pare batzuetarako eta zenbait domeinu murriztutan. Horrek nazioarteko negozioetan kostuak txikiagotzea eta produktibitatea hobetzea ahalbidetu du.

Testuinguru honetan diseinatu da eta garatzen ari da QTLeap proiektua gaur egun, “azken urteetan planteatu den ikerketa-proiektuen artean ambizio handienetako bat da giza hizkuntzaren teknologiaren eta itzulpen automatikoaren arloan” proiektuko koordinatzaile zientifikoa-ren hitzetan, Lisboako Unibertsitateko António Branco irakaslea.

Proiektuaren helburua da itzulpen automatikoan ikertzea, prozesatze linguistiko sakonean lortu diren aurrerakuntzak aprobeztatuta metodologia berritzaile bat proposatzea eta garatzea. António Brancoren arabera, “proiektu honek forma berritzaileak esploratzen ditu kalitate altuagoko itzulpenak lortzeko, azkenaldiko datu-base semantiko handiago eta sofistikuagoen belaunaldi berria erabiliz, baita hizkuntza naturaleko prozesatze semantikoko aurrerakuntzak ere”.

*Qtleap – Quality Translation by Deep Language Engineering Approaches* proiektua zortzi bazkide dituen partzuergo europar batek zuzentzen du: Zientzien Akademia Bulgariarra, Pragako Charles University, Inteligentzia Artifizialerako Ikerketa-Zentro Alemaniarrak, Higher Functions Ltd., Berlineko Humboldt Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Groningengo Unibertsitatea, eta Lisboako Unibertsitatea. Informazio gehiago lortzeko eta kontaktatzeko, mesedez, bisita ezazu: [qt leap.eu](http://qt leap.eu).